



www.lab.eus

/langileen-alde-hemen-erabaki/

- **INBERTSIO PUBLIKOA  
HANDITU**
- **HAURRESKOLAK ETA  
KUDEAKETA ALORREKO  
LANGILEAK BALIABIDEEZ  
HORNITU**
- **HAURRESKOLA  
TXIKIAK  
BABESTU**
- **LAN ZAMAK  
ARINDU**

- > Gazte berritze neurriak adostu
- > Berdintasun plana berritu
- > Lizentzia eta baimenak hobetu
- > EPE eredu negoziatu
- > Plantillak esleitzeiko irizpideak negoziatu
- > Lan osasuna bermatu



**Haurreskolak Partzuergoa**  
**LANGILEEN ALDE**  
*hezkuntza publikoa indartu*  
*hemen erabaki*

**LAB'**

EUSKAL  
SINDIKALISMO  
ERALDATZAILEA

# LANGILEEN ALDE

## *lan eta bizitza duinak*

### *hemen erabaki*

Euskal langileen lan eta bizi baldintzak duintzeko borroka indartzera goaz ikasturte honetan LABetik. Prekariatatea borrokatzeko neurri zehatzak planteatu ditugu horretarako: 1.600 euroko gutxieneko soldata langile guztientzat, 30 orduko lanaldia eta zerbitzu publikoak indartzea. Neurri egingarriak dira, horretarako borondaterik bada. Horregatik, Jaurlearitzari eskaera zuzena egin diogu, enplegu publikoa sortu eta dagoena egonkortu dezan, baliahideak handitzeko, ratioak hobetzeko eta pribatizatutako zerbitzuak lehengoratzeko, besteak beste.

Arlo publikoan lehenasunezko eremuen artean dugu hezkuntza. Euskal Eskola Publiko Komunitarioa edota Euskal Herriko hezkuntza-sistema burujabea - sare publiko bakar eta deszentralizatua- eraikitzeko bidean eskumen gehiago behar dugu, euskararen normalizazioaren aldeko lege eta araudi berriak, eta eskola publikoa sistemaren ardatz bilakatzea. Horren alde lanean ari gara Haurreskolak Partzuegoko LABetik ere, asko dugu esan eta aldarrikatzeko.

## **HEZKUNTZA PUBLIKOA INDARTU!**

## **HAURRESKOLAK PARTZUERGO PUBLIKOA ARDATZ,**

## **0-3AREN UDAL ESKAINTZA BATERATUA!**

**Kalitatezko hezkuntza publikoa izateko, inbertsio publikoa handitu, haurreskolak baliabidez hornitu eta langileon lan baldintzak hobetu behar dira. LABek ondorengo neurriak hartzea proposatzen du:**

### **> HAURRESKOLAK PARTZUERGOA HEDATU**

0-3 zikloa udaletatik berrantolatzeko proposamena da LABena, antolaketa deszentralizatu batean eta tokian toki gauzatuko dena. Haurreskola guztietako familiei hezkuntza zerbitzu berdina eman behar zaie. Haurreskolak Partzuegoa bera eraldatu behar da sare publiko bakar, burujabe eta deszentralizatua lortzeko.

## > HEZKUNTZA ZERBITZU UNIBERTSALTASUNA HELBURU, HAURREN MATRIKULAZIO ARAUDIA ALDATU

2023-2024 ikasturtean doakotasuna ezartzea lortu genuen. LABetik lanean jarraituko dugu herri guztietan haurren plaza nahikoa egoteko eta unibertsaltasuna lortu bidean haurrak onartzeko arauetan eragingo dugu.

## > BALIABIDE MATERIALETARAKO INBERTSIOA HANDITU

Kudeaketa alorreko baliabide teknologikoak zaharkituta gelditu dira. Hezkuntza Sailari inbertsio erreala eskatzen diogu arazo honi irtenbidea emateko eta kudeaketa alorra baliabide material zein pertsonalez hornitzeko.

## > RATIOAK HOBETU

Plantilla esleitzeko irizpideak adostu nahi ditugu. Hezitzaileen lan zamak arintzeko eta haurrei zein familiei kalitateko arreta emateko, ratioak hobetu behar dira, horiek haurreskola bakoitzaren tipologiara egokituz.

## > 30 ORDUKO LAN ASTEA

Jardunaldiaren murrizketa LABen aldarrikapen historikoa izan da. Beste urrats bat emateko beharra aldarrikatu zuen 30 orduko lan astea proposatuz. Urteko ordu kopurua jaisteaz gain, astekoa murriztea ezinbestekoa da.

## > HEMEN ERABAKI

Madriren ezartzen diren mugak eta ostean funtzio publikoko langileen mahai orokorrak ezartzen dituen mugak (soldata, errelebo kontratuaren baldintzak...) gainditu eta hemen erabaki. Galdutako %20ko erosahalmena gainditu eta %10a orain berreskuratu.

## > ZAINTZARAKO LIZENTZIA ETA BAIMENAK SUSTATU, BINKULOGRAMA SOZIOAFEKTIBOA

Zaintza lanei hertsiki lotuta dauden baimenak hobetzea gure lehentasunetako bat da.

Familia eredu tradizionala zalantzan jartzeko urratsak egingo ditugu, binkulograma sozioafektiboaren\* inguruko proposamenak landuz.



## > **FORMAKUNTZA ETA EUSKALDUNTZEA**

Euskarazko jardunean gaitasunak irabazteko eta etengabeko kalitatezko formakuntza jasotzeko Hezkuntza Saileko formakuntza programa orokorretan parte hartzea bermatu, eta lan funtzioei lotuta formakuntza espezifikoak diseinatzeko borrokatuko dugu.

\*Binkulograma: familia nuklear heteropatriarkalaren logika gainditu eta ahaidetasun harremana duten kideez gain, bestelako binkulazio emozionala edota soziala izan dezaketen pertsonak zaindu ahal izateko zaintza-neurria.



# LAB<sup>1</sup>

**EUSKAL  
SINDIKALISMO  
ERALDATZAILEA**